

AMESTEN DUDAN IKERGUNEA

Joxerra Garzia

Gaur egungo gizarte prozesuen erdigunean agertzen zaigu ahozketasuna, eta apenas dagoen esparru akademikoan jakintzagairik alde edo moldez ahozketasunaz arduratzen ez denik. Hau bezalako biltzarretan sarrien aipatzen direnak aipatuko ditut aurrena: Performancearen Teoria, Etnopoetika, Antropologia, Cultural Studies...

Horrez gain, ordea, aitortu behar dut horietan guztietan hainbat – eta haiek bezain interesgarri diren– ekarpen aurkitu izan dudala nik arrazoi batengatik edo besterengatik ustez ahozketasunaren alorrekoak ez diren jakintza alorretan mokoka ibili izan naizenetan. Luzeegi joko lidake horiek guztiak hemen zerrendatze hutsak ere, eta nire ustez nahitaez gurera ekarri beharrekoetan behinenak direnak baizik ez ditut aipatuko:

– Persuasioa. Gaur egun Psikologia Sozialaren alorrean dihardu diziplina honek, eta egundoko azterketa zehatzak eskaintzen ditu mezua jasotzean hartzaileak egiten duen (edo ez duen) lan kognitiboari buruz. Publizitatean eta propagandan ditu noski persuasioak bere jardun esparru paradigmaticoak, baina gogora dezagun Aristotelesek berak hirugarren genero bat ere aipatzen ziola Erretorikari – persuasioari, beraz– : epidiktikoa, ustez denbora pasa beste xederik ez duena. Beste lan batean saiatu naiz bistaratzen bat-bateko bertsolaritza genero erretoriko (persuasibo) epidiktikoaren ikuspegitik kontsideratzeak argi dezente egin dezakeela gure aztergaia ulertzerakoan. Eta, egia esan, harritzen naiz “performance” kontzeptuaren jiran nola ez den inoiz horrelakorik aipatzen, nik dakidala behintzat.

– Psikologia oro har, eta soziala bereziki. Badirudi aski adostasun zabala lortu dugula bat-bateko bertsolariaren xede nagusia ez dela maila poetiko bikaineko testuak sortzea, baizik eta tokian tokiko entzuleengan emozioak sortaraztea. Badirudi, ordea, hori esanda lasai gera gintezkeela. Hala, ez dakigu bertsolariak eragiten duen emozioa kantari batek (edo arte plastikoek edo musikak) eragiten dutenaren berdina den, antzekoa edota zeharo bestelakoa. Japonian, esaterako, hitz berezi bat dute lagunarte bat beraren partaide izateak sortarazten duen emozioa izendatzeko: “amae”. “Adimen emozionala” hain modako dagoen honetan, emozioen ikerketan hainbeste aurreratu den honetan, badukegu hortik geurera zer ekarririk asko.

– Soziologia. Testuari bezainbateko garrantzia ematen diogu orain testuinguruari, eta ongi dago hori. Baina testuinguruak halako garrantzia badu, entzuleen emozioez esan dugun gauza bera esan beharko dugu: sakonago ezagutu behar genuke. Gurean, esaterako, Torrealdaik eta Jakinen egindako ikerketaren tankerakoak behar ditugula, alegia, eta maiztasun jakin batekin. Soziologoek, bestalde, arreta handiz aztertu izan dituzte ahozketasunarekin zer ikusi zuzena duten fenomeno batzuk, hala nola hiri-zurruen, bat baino ez aipatzearren.

– Poetika. Bat-bateko bertsolaritza aztertzeo ikuspegi nagusia poetikatik erretorikara zabaldu badugu ere, horrek ez liguke aitzakiarik eman behar gure aurrekoen lanari segitzeko. Kostatu behar zaigu ederki Lekuonatarrek eta alderdi testualak aztertzean erakutsi izan duten finezia eta zehaztasun mailara iristen, baina lan horri segi egin behar zaio. Ez dago dena testuinguruaren aipamena eginda kitatzerik. Bat-bateko bertsoa ez da testu hutsa, baina testua ere bada, eta sakondu egin behar dugu nahitaez alderdi testualen ezagutzan: estrofismoa, errima, eta abar. Poetika berrietan bada aukerarik aski, lan hori hartu dugun ikuspegi erretoriko berriari dagokion moduan egiteko. Gainerakoa, zabarkeria baino ez da.

– Komunikazio zientziak. Hedabide berrien ikerketa komunikazio zientzien esparrutik egiten da nagusiki, eta, nire ustez, ahozkotasanaz arduratzen garenok badukegu alor horretan zer jaso eta zer eskainia ugari. Historian beste inoiz baino hedabide berri gehiago sortzen ikusteko zoria egokitu zaigu, eta, jakina denez, hedabide sortu berriari kostatu egiten zaio dagokion hizkera bilatzen. Horretan dihardute kazetari eta injinariak. Hedabide berriok gehienok, ordea, ahozkoak dira (edo ahozkoak ere bai behintzat): sakeleko telefonoa, bideo konferentzia, irrati, zinea eta telebista ez aipatzearren. Oraingoz idatzizko mekanika darabiltenak ere, ordea, ahozko moldea eskatzen diete beren bidez harat-honat dabiltzan mezuei: e-maila, WWW, txat... Eta, gainera, itxura guztien arabera, oraingoz mezuen moldean ahozko baina mezua sortzeko moduan idatzizko diren horiek ere guztiz ahozkoak izango dira urte gutxi barru. Harrigarri egiten zait, berriro ere, zein gutxi aipatzen diren kontu hauek hau bezalako forumetan.

Aspertu arte segi nezake, nahi izanez gero, gure aztergaia tajuz ulertzen lagungarri gerta daitezkeen ekarpenak egiten dituzten jakintza alorrak aipatzen, baina uste dut aski dela orain arte aipatuekin.

Ahozkotasanaren mapa zabaltzeko proposamentxoak egin nuen lehen eguneko neure txostenean. Oraingo honetan, berriz, ahozkotasanaren azterbideak ugaritu eta zabaltzekoa, oralisten artean ohikoak ez diren disziplinetara begi-belarriak zabaldurik. Mugatuegia, estuegia ikusten dut nik, egia esan, ahozkotasan akademikoaren azterbidea.

Gaitz zabaldua – aukeran zabalduetia – da hori, bestalde, gure esparru akademiko-unibertsitarioan. Jakintza alorka antolatuta, apenas dugun beste jakintza alorretakoei begiratzeko modurik, edo kemenik, edo gogorik.

Esan esaten da, noski, jakintza alor orok disziplina-artekoa behar duela gaur egun, hain da gure mundu hau konplexua. Baina esatea da bat, eta izatea, berriz, beste bat, oso ere bestelakoa. Elkarri ez-ikusiarrena eginez dihardugu, nork bere alortxoak, aurrean duen ildoak baizik ikusten ez duen idiaren gisa. Eta ildoak ulertuko bada, ildoak kanpo begiratu behar da, horrela baino ez baitaiteke uler ondik nora doan eta zertarako dagoen marra hori dagoen lekuan.

Ez dakit harira datorren, baina bereziki adierazgarria iruditzen zaidan adibide bat ekarri nahi nuke hona, diodana frogatze aldera edo. Halabeharrez zein bere aldetik ezagutu behar izan ditudan bi jakintza alorretakoak dira: Persuasiokoa bata, eta Testuaren Zientziarena bestea. Bietan ala bietan aldarrikatzen da Aristotelesen Erretorikaren egitasmoa osatu eta zaharberritzeko ahalegina dela bai bata eta bai bestea. Eta izan ere hala dira nire ustez: guztiz osagarriak. Eta hala ere, elkarren berri ez dutela dihardute biek.

Hona hemen, Persuasioaren alorretik, Petty y Cacioppo (1986) ikerlari sonatuek diotena:

One of the least researched and least understood questions in the psychology of persuasion is: what makes an argument persuasive? (...) Literally thousand of studies and scores of theories have addressed the question of how some extra-message factor (e.g., source credibility, repetition etc.) affects the acceptance of a particular argument, but **little is known about what makes a particular argument (or message) persuasive** in isolation.

Eta, Atlantikoaren beste aldetik, hona orain Teun A. Van Dijk, (1995) testuaren zientzien aitak zer dioen:

Por el momento, existe alguna evidencia conductista acerca de las relaciones entre estructura discursiva y el cambio de creencias y actitudes, pero **hay poca investigación explicativa dentro de los procesos cognoscitivos** y sociales subyacentes.

Hots: Aristotelesek Erretorikan diseinatu zuen egitasmoa osatu eta zaharberritzen ari direla, bakoitzak berea baizik ez du ikusten, edo ezagutzen, garbi dagoen arren elkarren osagarri bete-betekoak direla.

Horra zertan geratzen den disziplina-artekotasunaren aldarrikapena. Eta nago ez ote zaigun guri ere, ahozkotasuna ulertu nahirik gabiltzanoi, alegia, beste horrenbestetsu gertatzen.

Gauzak horrela, uste dut badela ordua urrats batzuk egiteko esana eta izana berdintzeko bide horretan. Nire ustez, honako bi urratsok dira une honetan premiazkoen:

1) Ari diren jakintza alorrean ari direla ere, ahozkotasuna hobekiago ulertzeko ekarpen baliagarriak dituztenak koordinatzeko sistemaren bat asmatu eta eratu.

2) Ekarpen orotarikook ordenatu eta integratzeko bidea emango ligukeen marko teoriko zabal bat, ekarpen bakoitza non kokatu eta nola ulertu jakin dezagun.

Bistan denez, elkarren osagarri dira bi urratsok, eta biak ere lehenbailehen egitekoak, nire ustez. Ekarpentok ordenatu eta integratuko lituzkeen marko teorikoari dagokionez, esana dut lehen ere (Garzia, Egaña eta Sarasua, 2001) ez dudala Erretorika Zaharraren bost kanonena bezalakorik ezagutzen. Aipatu obra horretan bertan ikus daiteke zeinen argigarri gerta daitekeen marko teoriko hori bat-bateko bertsolaritza aztertzeke garaian.

Baina topaketa hauetan bertan egin da bestelako proposamenik ere, hala nola Foley irakaslearen irizpide eta kategoriarena. Bata zein bestea izan, edo bien arteko sintesia, uste dut aurrera begira hemen bilduok geure buruari jarri beharreko lehentasunetan lehenetakoa behar lukeela marko teoriko horrek.

Ekarpentak inguratzeko sistemari dagokionez, berriz, Arantza Mariskal Bertsozale Elkarteko Xenpelar Dokumentazio Zentroaren arduradunak badu proposamen zehatz eta aski interesgarria hemen bertan egiteko, eta aurki izango dugu zehatz-mehatz zertan den jakiteko aukera.

Bi puntu horietan gutxieneko adostasun batera helduko bagina, egia bihurtzen hasita ikusiko nuke nik aspaldidanik amesten dudana ikergunea. Gure horretan, jakina, hemen bildu zaretan guztiok nahi zintuzketet gune horretan ikerkide. Seguru nago aurki bilduko litzaizkigukeela beste asko ere, munduko bazter guztietatik.

Bibliografia

ARISTOTELES (1971), *Retórica*, Madrid, Instituto de estudios políticos.

CASTELLS, Manuel (1998), *La era de la información. Economía Sociedad y Cultura*, (bi liburuki), Madrid, Alianza Editorial.

CRUZ PIÑOL, Mar, "Un nuevo medio de comunicación: la Internet. Su utilidad en el mundo de las lenguas", in GARRIDO MEDINA, Joaquín (1999), II. liburukia, 558-565 orr.

CRYSTAL, David, 2001, *Language and the Internet*, Cambridge, University Press.

EVANS, Dylan (2001), *Emotion. The Science of Sentiment*, Oxford U.P.

FOLEY, J.M. (2003), "Comparative Oral Traditions", Kultur Arteko Topaketa hauetarako txostena.

GARRIDO MEDINA, Joaquín (1999), *La lengua y los medios de comunicación*, Madrid, U. Complutense, (1996ko Biltzarraren Aktak) (bi liburuki). Autorearena berarena, ikus obra honetan bertan "Oralidad, escritura, imagen: discurso y texto", I. liburukia, 65-74 orr.

GARZIA, Joxerra (2000), *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak. Marko teorikoa eta aplicazio didaktikoa*. Bilbao, UPV/EHU, Tesis Doctorales.

GARZIA, Joxerra (ed.), SARASUA, Jon y EGAÑA, Andoni (2001), *El arte del bertsolarismo. Realidad y claves de la improvisación oral vasca*, Donostia, Bertsozale Elkartea.

- MOLINÉ, Marçal (1988), *La comunicación activa. Publicidad sólida*, Bilbao, Ediciones Deusto.
- MONDELO GZALEZ, Elisa, eta RODRIGUEZ GARCÍA, Teresa, "Internet: de la oralidad telemática al hipertexto audiovisual", in GARRIDO MEDINA, Joaquín (1999),), II. liburukia, 565-575 orr.
- MORRIS, Steve, 2000, *Perfect E-mail*, London, Random Hous Business Books.
- MORTARA GARAVELLI, Bice (1988), *Manual de retórica*, Madrid, Cátedra.
- O´KEEFE, Daniel J. (2002), *Persuasion. Theory and Research*, London, Sage publications.
- OLSON, David R., eta TORRANCE, Nancy (biltz.)1998/91, *Cultura escrita y oralidad*, Barcelona, Gedisa.
- PERELMAN, Ch. y OLBRECHTS-TYTECA, L. (1976 [1958]), *Traité de l'argumentation: La nouvelle rhétorique*, Bruxelles, Editions de l'Institut de Sociologie (Editions de l'Université de Bruxelles).
- PERLOFF, Richard M. (1993), *The Dynamics or Persuasion*, Hillsdale, New Jersey, Lawrence Erlbaum Associates Publishers.
- PETTY, Richard E. y CACIOPPO, John T. (1986), *Communication and Persuasion. Central and Peripheral Routes to Attitude Change*, New York, Springer Verlag.
- RAIBLE, Wolfgang, (1996), "Orality and Literacy. On their Medial and Conceptual Aspects", in SCHEUNEMANN, Dietrich (ed.) (1996), 17-27 orr.
- REYNOLDS, John Frederick (ed.) (1993), *Rhetorical Memory and Delivery. Classical Concepts for Contemporary Composition and Communication*, New Jersey, Hillsdale.
- SCHEUNEMANN, Dietrich (ed.) (1996), *Orality, Literacy and Modern Media, USA*, Columbia, Camdem House INC. Autore honena, ikus bereziki "Collecting Shells in the Age of Technological Reproduction: On Storytelling, Writting and the Film", 79-95 orr.
- SIMONE, Raffaele, 2001, *La tercera fase. Formas de saber que estamos perdiendo*. Madrid, Taurus.
- VAN DIJK, Teun A. (1995), *Texto y contexto. Semántica y pragmática del discurso*, Madrid, Cátedra.